

## PRIBATUTASUN-POLITIKA

**Portugaleko eta Espainia optika zentruetan, optometria eta ikusmen-osasunaren profilaren azterketa** parte hartzea onartzen baduzu, datu pertsonal jakin batzuk eman beharko dizkiguzu. Pribatutasun-politika hau datu horiek nola tratatuko diren erraz jakinarazteko idatzi da.

### **Nor da tratamenduaren arduraduna?**

Tratamenduaren arduraduna General Optica SA («**General Optica**») da. Helbide honetan du egoitza: L'Hospitalet errepidea, 147, Cityparc, Amsterdam eraikina, Cornellà de Llobregat (08940, Bartzelona).

### **Datuak babesteko ordezkaria**

General Opticak datuak babesteko ordezkari («**DBO**») bat izendatu du, zeina azterketako parte-hartzaileen esanetara baitago datu pertsonalen tratamenduari buruzko edozein galdera edo zalantza argitzeko.

Hauek dira DBOarekin harremanetan jartzeko bideak:

- Posta elektronikoz: dpo@general-optica.es
- Posta arruntez: L'Hospitalet errepidea, 147, Cityparc, Amsterdam eraikina, Cornellà de Llobregat (08940, Bartzelona).

General Opticako DBOak modu independentean betetzen ditu bere eginkizunak. Horregatik, ukitutakoek DBOari ere aurkeztu diezazkiokete erreklamazioak, haien eskubideei ondo erantzun ez dietela edo haien datuak modu desegokian erabiltzen ari direla uste badute.

### **Zer datu pertsonal biltzen dira azterketan parte hartzean?**

Azterketaren lehen fasean, General Opticako optometristek parte-hartzaile bakoitzaren datu hauek bilduko dituzte:

- Bezeroaren identifikazio-zenbakia (Bla)
- Izen-abizenak
- NAN-zk.
- Sinadura (baimen-orrian jasota dago)
- Sexua
- Adina
- Arreta ematen dioten General Optica ren zentroa
- Errefrakzio-akatsa (miopia, hipermetropia, astigmatismoa edo presbisia)
- Posta kodea
- Posta elektronikoa
- Egindako testeko erantzunak
  - Ikusmen zorrotasuna
  - Ikusmen azterketa pertsonalizatuaren baloreak (hala badagokio):
  - Acomodazio probak (anplitudea, malgutasuna, anplitude erlatibo negatiboa,
  - anplitude erlatibo positiboa eta 4B
  - Proba bergentzialak (Cover testa, Worth, estereopsia, Fusio-erreserbak eta konbergentzia puntu hurbila)
  - Ikusmen-osasun probak (Begi-pupilak, Amsler sarea, kolore Testa , Presión intraocular)
  - Ondorio optometrikoak.

Gero, aurreko datuak (izen-abizenak, NAN-zenbakia eta sinadura izan ezik) sistema seguru baten bidez ikerketa-taldeari helaraziko zaizkio, gainerako parte-hartzaileen datu klinikoekin batera analiza ditzan.

### **Zer xedekin tratatuko dira zure datu pertsonalak?**

Datu pertsonalen tratamenduaren xede nagusia da azterketa garatzea; parte-hartzaileak azterketari buruzko informazio gehigarria jaso du.

Horrek, besteak beste, jarduera hauek barne hartzen ditu:

- Parte-hartzaile bakoitzak emandako baimena egiaztatzea, identifikazio-datuak (izen-abizenak eta NAN-zenbakia) jasotzen dituen dokumentu bat sinatuz.
- Parte-hartzailearen ikusmen-osasunari buruzko informazioa biltzea.
- Bildutako informazio klinikoa tratatzea, **izen-abizenik eta NAN-zenbakirik gabe, programa eta aplikazio informatikoen bidez, balio zientifikoko ondorioak ateratzeko.**

Azterketaren ondorio eta emaitza guztiak **anonimizatuta** argitaratuko dira, hau da, parte-hartzaileak identifikatzea ahalbidetzen duen datu pertsonalik barne hartu gabe.

### **Zer legitimazio-oinarrik gaitzen du deskribatutako tratamenduak egiteko?**

Datu pertsonalak parte-hartzaile bakoitzak emandako baimenean oinarrituta tratatzen ditugu, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduak, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen dituenak eta 95/46/EE Zuzentaraua («**Datuak babesteko Erregelamendu Orokorra**» edo «**DBEOa**») indargabetzen duenak, 6.1.a) artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.

### **Nork izango du zure datu pertsonaletarako sarbidea?**

General Optica-ko optometristek, General Optica-ko ikerketa taldeak eta inGO ikerketa proiektuari atxikitako unibertsitateetako ikerketa taldeek, General Optica-ren tratamendu arduradun gisa jokatu, zure datu pertsonaletara sarbidea izango dute (unibertsitate horien zerrendara web helbide honetan sartu daiteke: [www.generaloptica.es/es/ingo-politica-privacidad-tv](http://www.generaloptica.es/es/ingo-politica-privacidad-tv)).

Gainera, baliteke osasun-arloko ikerkuntza-batzorde etikoak datu jakin batzuk eskatzea bere eginkizunak garatzean.

### **Zenbat denboraz gordeko dira?**

Zure datu pertsonalak gehienez 10 urtez gordeko dira eta, epe hori igarotakoan, modu seguruan suntsituko dira.

### **Nola erabil ditzakezu zure eskubideak?**

Datuen babesari buruzko indarreko araudiaren arabera, ukitutakoek eskubide hauek erabil ditzakete:

- Norberaren datuetarako sarbidea eskatzea eta haien kopia bat eskuratzea.
- Kasu batzuetan zuzentzeko edo ezabatzeke eskatzea.
- Profil pertsonalizatuak egitearen aurka egitea.
- Kasu jakin batzuetan tratamendua mugatzeko eskatzea.
- Kontratu-harreman bat dagoenean emandako datuen eramangarritasuna eskatzea.

Azterketako parte-hartzaileak bere datu-pertsonalak ikusi, ezabatu edo aurreko eskubideetako edozein erabili nahi badu, bide hauen bitartez jarri ahalko da General Opticarekin harremanetan:

- Posta elektronikoz: [atencioncliente@general-optica.es](mailto:atencioncliente@general-optica.es).
- Posta arruntez: L'Hospitalet errepidea, 147, Cityparc, Amsterdam eraikina, Cornellà de Llobregat (08940, Bartzelona). Norentzat: General Opticako datuak babesteko ordezkaria.
- Aurrez aurre, General Opticako edozein establezimendutan.

Emandako baimena azterketaren edozein fasetan edo azterketaren ondoren errebokatu nahi baduzu, orobat General Opticari komunikatu diezaiokezu, goian aipatutako bideen bitartez. Kontuan hartu zure datuen tratamendurako baimena errebokatuz gero ezingo duzula azterketan parte hartzen jarraitu.

Nolanahi ere, parte hartu den azterketa aipatu beharko da.

Gainera, ukitutakoak beti aurkeztu ahalko ditu egokiak iruditzen zaizkion erreklamazioak, Datuak Babesteko Espainiako Bulegoan ([www.agpd.es](http://www.agpd.es)).